

BEZaren BEREHALAKO INFORMAZIO HORNIDURA (BIHa)

- Funtzionamenduaren oinarritzko lerroak -

BIHra biltzen diren subjektu pasiboek Gipuzkoako Foru Ogasunaren zerbitzu telematikoen bitartez eraman behar dituzte BEZaren araudiak ezartzen dituen erregistro liburu hauek:

- Egindako fakturen erregistro liburua.
- Jasotako fakturen erregistro liburua.
- Inbertsio ondasunen erregistro liburua.
- Batasun barruko hainbat eragiketaren erregistro liburua.

Horretarako, fakturazioari buruzko xehetasunak igorri behar dizkiote Gipuzkoako Foru Ogasunari, eta informazio horrekin osatuz joango dira, ia denbora errealean, erregistro liburuak.

Informazio hori bide elektronikoz bidali behar da, eta zehazki, XML mezuen elkartrukean oinarritutako web zerbitzuak erabiliz. Gainera, informazioa “web formulario” baten bitartez ere bidali ahal izatea aurreikusten da, subjektu pasiboek oso eragiketa gutxi egiten dituztenerako edo faktura jakin batzuen erregistroak modu bakartuan bidali nahi direnerako.

Bi kasuotan, foru agindu bidez onartuko diren erregistro eremuen arabera helarazi behar dira datuak.

Fakturen informazioa bidaltzea

Kontua ez da fakturak bidaltzea modu elektronikoz, kasuan kasuko foru aginduak ezarriko dituen fakturazio erregistroen datuak baizik.

Nola bidali behar zaizkio fakturazio erregistroak Gipuzkoako Foru Ogasunari?

Epe hauek aurreikusi dira:

A) Egindako fakturak

- **4 egun natural**, faktura egiten den egunetik aurrera.
- Hartzailleak edo hirugarrenek egindako fakturak: **8 egun natural**.
- Edozein kasutan, zergaren sortzapena gertatu eta **hurrengo hilaren 16a baino lehen**.

B) Jasotako fakturak

- **4 egun natural**, faktura edo AABa kontabilitatean erregistratzen denetik aurrera.
- Edozein kasutan, eragiketak aitortzen diren zergaldia **amaitu eta hurrengo hilaren 16a baino lehen**.

C) Batasunaren barruko hainbat eragiketa

- **4 egun natural**, ondasunen bidalketa edo garraioa hasten den unetik, edo, hala badagokio, horiek jasotzen direnetik.

D) Inbertsio ondasunen informazioa

- **Urteko azken likidazio-aldia aurkezteko epearen barruan** (urtarrilaren 30era arte).

E) Kutxako irizpidearen araubide berezia

- Epe orokorrak.

F) Erregistroko zuzenketak

- Zuzenketak kontuan izan behar dituen aitopenari dagokion zergaldia amaitu eta hurrengo hilaren 16a baino lehen.

EPEEI BURUZKO OHARRA: Aipatutako 4 eta 8 egun naturalen zenbaketan ez dira zenbatuko larunbatak, igandeak eta Gipuzkoako Lurralde Historiko osoan jaiegunak diren egunak.


Hala, hurrengo hilaren hamabosgarren eguna, hau da, epemuga, larunbat, igandea edo jaieguna bada, epemuga hurrengo egun balioduna izango da.

EPEEN LUZAPENA: **Informazioa bidaltzeari** begira 2018ko urtarrilean eta urte horretako otsailaren lehen hamabostaldian amaitzen diren epeak 2018ko **otsailaren 20ra arte luzatutzat** joko dira (47/2013 FDaren Xedapen Iragankorra).

Bidali behar den informazioa BEZaren erregistro liburuetan gaur jasotzen den berbera al da?


Ez. Informazio jakin bat bakarrik bidali behar da Gipuzkoako Foru Aldundira, eta informazio hori bi leku diferentetan dago gaur: BEZaren erregistro liburuetan eta fakturretan. Horrez gain, zerga arloan garrantzitsua den eta orain arte 340 eta 347 erduetan adierazten zen hainbat informazio ere bidali behar da.

BIH-AREKIN BIDALI BEHARREKO INFORMAZIOA




Hona hemen zer informazio bidali behar zaion, BIH berriaren bitartez, GFari, **Egindako Fakturen Erregistro Liburuari dagokionez** (gaurko erregistro liburuetan eta fakturen eremuetan jasotako informazioa da):

BIH-AREKIN BIDALI BEHARREKO INFORMAZIOA



Bere aldetik, hona hemen zer informazio bidali behar zaion, BIH berriaren bitartez, GFari, **Jasotako Fakturen Erregistro Liburuari** dagokionez (gaurko erregistro liburuetan eta fakturen eremuetan jasotako informazioa da):

BIH-AREKIN BIDALI BEHARREKO INFORMAZIOA





BIHaren araudia

Gipuzkoako Lurralde Historikoan honako araudia da aplikagarria:

- Zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua, abenduaren 17ko [47/2013 Foru Dekretuaren](#) bidez onartzen dena.
- Fakturatzeko obligazioak arautzen dituen Erregelamendua, otsailaren 26ko [8/2013 Foru Dekretuaren](#) bidez onartzen dena.
- BEZaren Erregelamendua onartzen duen abenduaren 29ko [1624/1992 Errege Dekretua](#).
- [467/2017 Foru Agindua](#), azaroaren 13an GAOren 216 zenbakian argitaratua, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren erregistro liburuak Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bidez nola eraman garatzen duten zehaztapen tekniko eta arauemaileak ezartzen dituena.
- [592/2017 Foru Aginduak](#), Foru Agindua, abenduaren 29koa, fakturazio erregistroak elektronikoki bide telematiko bidaltzeko gizarte lankidetzaren baldintzak onartzen dituena, 001-P edo 001-L ordezkariak ez dutenentzat.

BIHari buruzko argibideak eta berariazko laguntza

- Zerga kontsultak:
943 113000
- Kontsultak teknikoak:
siikontsultak@gipuzkoa.eus

www.gipuzkoa.eus/ogasuna/bih